

Fluorraren erreferentziako balio dietetikoaren berrikuspena - EFSA 2013

EFSA (<http://wikia.elika.eus/index.php/EFSA>)ko Dietetika-produktuen, Nutrizioaren eta Alergien Panelak (NDA) irizpen bat argitaratu du. Bertan, berrikusi egiten dira fluorraren erreferentziako balio dietetikoak, eta honako balio hau ezarri da, **Ingesta Egoki gisa: 0,05 mg/gp kg/egun**. Horretarako, iturri guztiak aintzat hartu dira, elikaduraz gaindikoak ere bai.

Fluorra ez da funtsezko nutrientea; beraz, ezin dira oinarrizko funtzio fisiologikoetarako betekizunak definitu. Alabaina, hagineta txantxarrek saihesteko onuragarria denez gero, Panelak egokitzen jo du Ingesta Egokiko erreferentziako balioa ezartzea.

Elikaduran, fluor-iturri nagusiak ura, ur fluordunarekin berrosatutako edariak, tea, itsas arrainak eta gatz fluorduna dira. Epidemiologia-azterlanek erakutsi egiten dute alderantzizko harremana dagoela uretako fluoruroaren kontzentrazioaren eta txantxarren prebalentziaren artean. Alabaina, oso gaitza da dosia/erantzuna harremana ezartzea fluorraren ingestaren eta txantxarren arriskuaren artean; izan ere, azterlan gehienetan ez da aintzat hartzen hagin higinerako produktuek duten fluorra.

Nolanahi ere den, Panelak uste du dosia/erantzuna harremanari buruzko datuak, txantxarren eta fluor-kontzentrazio ezberdinak dituzten ur edangarrien kontsumoaren arteko eraginari dagokionez, behar bestekoak direla honako Ingesta Egoki hau ezartzeko: 0,05 mg / gorputz-pisuko kg/egun. Horretarako, aintzat hartu dira iturri guztiak, elikaduraz gaindikoak barne; hala nola, hortz-orea eta hagin higinerako produktuak.

Ez dago daturik fluorraren kontsumoaren eta txantxarren eraginaren arteko dosia/erantzuna harremana definitzeko helduen artean, baina Panelak uste du Ingesta Egoki hori helduei, emakume haurdunei eta edoskitze-aroan dauden emakumei ezar dakiekeela. Azken horiei dagokienez, emakumeak haurdunaldia baino lehen zuen pisuaren arabera kalkulatu behar da.

EFSAren irizpena (<http://www.efsa.europa.eu/en/efsajournal/doc/3332.pdf>)

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 . berri@elika.eus (<mailto:berri@elika.eus>)